

## Antxiñako fotografixia

### Neska gazte oñatiarrak alkartuta Erreterixaren alde

Bigarren Errepublikari ez eben asko iraun. Leku batzuetan bost urte, beste batzuetan gehixuago, 1936-1939ko gerra zibillaren martxiaren arabera. Danera jota be, zazpi-zortzi urte gehixenez. Oñatin bost urte eta bost hillabete pasatxo. Tarte labur horretan, baiña, era askotako gauzak pasau ziran, eta ez danak politikariak edota burruka sindikalak eragindak. Sasoi hareittan be, normala danez, bestelako gertakariak izaten ziran: onak eta txarrak. Txarren artian **uraundiak** aittatu bihar. Orain-txe letxe, orduan be eurixa idolaz egitten eben sarritan eta, ondorixoz, urak eta errekek urtenbidia topau bihar izaten euen, askotan eurai ohostutako lurretan zihar. **Uramillak kalte galantak** ekarten zittuain gehixenetan herrixetara, jakiña.



Orduan nahiz gerora uraundixen ondorixuak Gipuzkuan era latzian sufridu dauen eskualdetako bat **Erreterixa aldia** izan da. Ingu-ru hareittatik pasaiten dan Oiartzun errekiak, hutsa eta motza izan arren, pikardixa haundixak sortu ohi dittu bere onetik urtetan daue-nian. Errepublikaren denporan be behin baiño gehixagotan gertatu ziran halakuak. **Bilddurgarrixenak**, biharbada, 1933.ekuak izan **ziran**: bagillaren 16 eta 17xan kalte izugarriak eragin zittuan herri osuan uramillak, hilddako eta guzti; baiña urte bereko urrixaren 23kua etzan makalagua izan. Ezbihar larri horreiri zelabaitteko laguntzaia emuteko, Gipuzkuako herri askotan **diru-batzeiak** antolatatu ziran. Horreittako bat da gaurko fotografixan agerketan dotsueguna: Oñatiko neska gaztiak asmo horretarako gertu ikus geinke ber-tan. Ezkerretik eskumara honeitxek ditzuzue protagonistak:

Zutik: **Dolores Mugartza**, Kale Barrikua; **Petra Agirrezabal**, San Antue kalekua; **Maritxu Ibarrondo**, Kale Barrikua; **Fran-tziska Ugarte**; **Maria Oregi**, Kale Barrikua; **Pilar Arrue**, Arantzazu kalekua; **Dorotea Madinazkoitia**, Kale Zaharrekua; **Nati Ortiz de Zarate**, Kale Zaharrekua; **Felisa Enparantza**, Kale Zaharrekua; eta **Edurne Galartza**, Bakardadeko Ama kalekua.

Lurrian jarritta: **Ines Ibarrondo**, Kale Barrikua; **Blankita Egaña**, Kale Barrikua; **Elbira Erostege**, San Antue kalekua; **Maritxu Sukia**, Kale Barrikua; **Maritxu Alberdi**, Kale Zaharrekua; **Gloria Oiartzabal**, Moiuia kalekua; eta **Karmen Aiastui**, Bakardadeko Ama kalekua.

Baiña argazki honek badako beste zertxo interesgarri bat. **Neska gaztiok etziran kuadrilla batekuak, ezta pentsakera edo jokera berekuak be**. Bigarren Errepublikako giro nahasi eta bero haretan era askotako iritzizak egozen Oñatin: karlistak, nazionalistak, erre-publikanuek eta abar. Baitta emakumien artian be. Ba, fotografixa honetan, **behingoz eta larrialdi bateri erantzuteko bat egindda, jokera guztietako herritar gaztiak agerketan xaku**, Atzeko kalia euren otzaratxuekin lanerako prest. Guk eztogu argibide gehixago emungo. Irakurliak topau begi, gura baldin badau, nesken arteko iritzi-diferezentzia horreik. Ezta hain zailla. Zoritxarrez, ez eben momentuko alkarlan horrek hurrengo hillabete eta urtietan jarraitu. Dana dala, hor geratu xaku neska gazte, polit eta, egun baterako bada be, alkartutakuen irudi ederra.

J. E.

Milla esker argazkixa eskuratu eta informaziño gehixena emun doskun pertsona anonimuari. Baitta xehetasun batzuk argi-ttu doskuen Euxebe Osa eta Marijo Altuberi be.